

Udal Liburutegi Nagusia

Udal Liburutegi Nagusia. Haur Saila.
Haur Liburuaren Dokumentaziogunea

Kultur etxeetako liburutegiak:

AIETE
CASARES-TOMASENE (Altza)
EGIA
ERNEST LLUCH (Amara)
INTXAURRONDO BERRI
LARRATXO
LARROTXENE (Intxaurrenondo)
LOIOLA
LUGARITZ (Antigua)
OKENDO (Gros)

Urgull Mendiko Liburutegia

Udal Musika eta Dantza Eskola Liburutegia (Atotxa-Egia)

Cristina Enea Ingurumen Baliabideen Etxea

San Telmo Museoko Liburutegia

Amundarain Mediateka (Arantzazuko Ama ikastola)

Donostia Kultura Liburutegi-zerbitzua

Konstituzio plaza, 1-3.
20003 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 48 11 58 - 943 48 11 62
Fax 943 43 18 95
donostiakoliburutegiak@donostia.org

5.000 ale 0,11€ bana

www.donostiakultura.com/liburutegiak

Katalogoa

<http://katalogoa.donostiakultura.com>

Hemeroteka digitala

<http://liburutegidigitala.donostiakultura.com>

Blog

<http://blogak.donostiakultura.com/liburu-dantza>
<http://blogak.donostiakultura.com/liburutegien-ahotsa>

Internet, ofimatika, baliabide elektronikoak

donostiakultura.com



Donostiako
Udal Liburutegien Sarea

donostia

liburu
bibliotecas
giak
san Sebastián



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIÁN



internet : ofimatika : CD-ROM : liburu elektronikoak : blog

Liburutegia eta teknologia berriak, nabigatzeko, jolasteko, informazioa bilatzeko, lan egiteko...

INTERNET

LIBURUTEGIA INTERNETEN

- **Katalogoa:** katalogoa.donostiakultura.com web orrialdean edozein bilaketa egin ahal izango duzu liburutegiko funtsetan. Eta bazkide moduan, zure datuak kontsultatu, maileguak berri eta erreserbak egin...
- **Web-orria:** www.donostiakultura.com/liburutegiak, bertan informazioa aurkituko duzu liburutegien eskaintzen inguruan.
- **Hemeroteka digitala:** liburutegidigitala.donostiakultura.com helbidean, XIX. eta XX. mendeko Donostiako prentsa historikoa kontsultatu dezakezu.
- **Galdetu zerbitzua:** Kultura Ministerioarekin elkarlanean eskaintako zerbitzua www.pregunte.es helbidean dago eta urtean 365 egun marxan egoteaz gain, zure galderaren erantzuna 48 orduetan izango duzu.
- **Galdetu on-line zerbitzua:** "Galdetu: liburutegiek erantzungo dute" zerbitzuaren txat-eskaintza berriak zure galdera denbora errealean egiteko aukera eskaintzen dizu.

INTERNET ESKURAGARRI

Liburutegiak ordenagailuak eskaintzen dizkizu nabigatzeko, kontsultak egiteko, jolasteko, informazioa bilatzeko, denbora pasatzeko, lan egiteko eta beste hainbat gauzarako. Ordenagailuek Custodius txartela dutenez, itzaltzen direnean jatorrizko egoerara itzultzen dira biltegiatutako informazioa galduz. Zure lanak kanpo-gailu batean (USB) gorde ditzakezu, zure posta elektronikora bidali edo CD/DVD batean grabatu.

Gogoratu Jabetza Intelektualari dagokion legedia errespetatu eta Internet era egokian erabili behar duzula. Liburutegia ez da erabileraren edo berreskura dezakezun informazioaren erantzule izango.

Internet helduentzat

Hamalau urtetik gorako bazkideentzat. Zure Donostia Kultura txartela edo Liburutegien Sareko baliozko txartela aurkeztu behar duzu kontsulta has-teko.

Erabileraren gehienezko denbora 60 minutukoa da.

Internet haurrentzat

Hamalau urtetik beherako bazkideentzat, gurasoen aurretiazko baimena-rekin. Kontsulta hasteko zure Donostia Kultura txartela edo Liburutegien Sareko baliozko txartela aurkeztu behar duzu.

Ordenagailuek Optenet programa dute egokiak ez diren edukietarako sar-rerra galarazteko. Gainera, liburutegiak gomendio batzuk eskainiko dizkizu nabigazioa seguruagoa izan dadin, bai eta web-orrien aukeraketa bat ere. Erabileraren gehienezko denbora 30 minutukoa da.

Wi-Fi: Internetera haririk gabeko sarrera

Liburutegiak haririk gabeko teknologia du Internetera sartzeko, hala adie-razitako guneetan. Doako zerbitzua erabili ahal izateko Herritarren Txartela beharrezkoa da.

Kontsultatu sarrera-baldintzak web-orrian.

Ordenagailu eramangarrien mailegua

Liburutegiko instalazioetan erabiltzeko. Hemezortzi urtetik gorako bazki-deentzat, Donostia Kultura txartela edo Liburutegien Sareko baliozko txarte-la aurrez aurkeztuta, NANA edo pasaportearekin batera; dokumentu horiek mailegua amaitzean itzuliko zaizkizu.

Erabileraren gehienezko denbora hiru ordukoa da.

Internet: nabigazioa eta prestakuntza

Eusko Jaurlaritzak garatutako Konekta Zaitzez programaren bidez. Hamalau urtetik gorakoentzat, aurrez programan izena emanda.

Erabileraren gehienezko denbora 45 minutukoa da.

OFIMATIKA

Liburutegien Sareko bazkide guztientzat. Donostia Kultura edo Liburutegien Sareko baliozko txartela aurkeztu behar da.

Ordenagailuek Custodius txartela dutenez, itzaltzen direnean be-ren jatorrizko egoerara itzultzen dira biltegiatutako informazioa galduz. Zure lanak kanpo-gailu batean (USB) gorde ditzakezu, zure posta elektronikora bidali edo CD/DVD batean grabatu.

Erabileraren gehienezko denbora 60 minutukoa da, eta luza dai-teke eskaerarik ez badago.

CD-ROM

CD-ROMak kontsultatzeko ordenagailuak eskaintzen dizkizugu, helduen zein haurren sailean. Azken horretan, programazio fin-koa eskaintzen da.

LIBURU ELEKTRONIKOAK

Irakurketa eta informaziora hurbiltzeko modu berria. Liburutegiak memoria-txartela duten liburu elektronikoak irakurgailuak eskain-tzen dizkizu.

Zerbitzua Liburutegien Sareko edozein bazkidek erabil dezake aurretik eskaera-formularioa bete eta Donostia Kultura edo Libu-rutegien Sareko baliozko txartela aurkezten badu.

GURE BLOGAK

<http://blogak.donostiakultura.com/liburu-dantza>

<http://blogak.donostiakultura.com/liburutegien-ahotsa>

Gure zerbitzuei eta jardueri buruzko albisteak eta informazioa eskaintzen dugu. Zure iruzkinak eta iradokizunak behar ditugu.

Sartu eta parte hartu.